



EBAZPENA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, 2019KO MAIATZAREN 17KOA, ZEINAREN BIDEZ ZEHAZTEN BAITA TRAPAGARANGO EL JUNCAL SI-JU-UB01 INDUSTRIA-SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA.

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 29an, Trapagarango Udalak El Juncal SI_SAL_UB01 Industria Sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta hasteko eskaera egin zuen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatutakoarekin bat etorritz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, sektoreko legerian eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu dekretu horrek.

2019ko martxoaren 5ean, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Ingurumen-organoak administrazio publiko eta interesdun hauei egin zien kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- lhobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumen Jasangarritasun Saila
- Ekologistak Martxan Bizkaia
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarte

Bestalde, data horretan bertan, eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura jarri ziren planaren zirriborroa, sektoreko legeriak eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2 Dekretuaren V. Eranskineko formularioa; jarri ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, planaren gaineko interesa izan zezakeen oro identifikatzeko asmoz.



Legerian ezarritako epea beteta, hauek erantzun dute: Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza; Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia, Kulturako Zuzendaritza Nagusia, eta Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia; eta Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Erantzunak espedientean jaso dira.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan diotenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioaren xedea hauxe da, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera: ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998) 42. artikuluan diotenaren arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta beharko dute administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planek eta programek, bai eta haien aldaketek ere, haien prestaketa eta onarpena beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, artikulua horretan zehaztutako baldintzaren bat betetzen dutenean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostena aztertu da, eta xedapen hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko



orokorra; 21/2013 Legea abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzekoa; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Trapagarango El Juncal SI-JU-UB01 Industria Sektorearen Plan Partzialaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

1.- Planaren xedea

Plan Partzialaren xedea da El Juncal SI-JU-UB01 industria-sektorean garatzeko diren jarduketan antolamendu xehea zehaztea, Trapagarango HAPOan ahalbidetzen den hirigintza-aprobetxamendua araututa. Eremua (guztira 80.763 m²-ko azalera) erabilera industrialeko lurzoru urbanizagarri gisa dago sailkatuta.

Planak erabilera ekonomikoko hiru lurzati handi sortzea aurreikusten du (J1, J2 eta J3), guztira, 46.882 m²-ko azalarekin; 1.902 m²-ko azalera bideratuko da ekipamendu kolektiborako esparruaren erdialdean, J1 eta J2 lurzatiaren artean, eta erriberako luzetarako parkea/berdegunea Granada ibaiarekiko paraleloan, sektoreko iparraldean (10.411 m²). Berdegune horrek uraldiak eusteko gunearen funtzioa beteko du.

Sektoreak bi komunikazio-sistema orokor hartzen ditu barnean (BI-3746 eta BI-3747 errepideak). Proposatutako antolamenduaren osagarri, barne-zirkulazioa banatzeko errepide bat, J2 eta J3 lurzatiaren artean legokeena, eta aipatu errepideekin lotzeko bi biribilgune berri, eta sektorearen erdialdean aparkalekua eraikitzea ere proposatzen da. Planak, halaber, industriagunetik aparte dagoen espazio libreen sistema orokor baten zati bat ere adskribatzen du (% 25a).

Sektoreko uholde-arazoak konpontzeko, urbanizazioaren sestrak +5 kotatik gora egon behar dira, BI-3746 errepidearekin lotura egiten den tokian salbu, egungo kotari eutsiko baitzaio bertan. Planak, gainera, Granada ibaiaren eskuin ertzeko ezponda lautu nahi du, malda txikiagotuta eta ibaiaren ibilgua zertxobait zabalduta.

2.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia:

Ingurumen-azterketa estrategikoak gutxieneko eduki hau hartu beharko du barnean: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa (I. eranskinean jasotakoa ere kontuan izan behar da).



Eremuaren ezaugarriak eta gauzatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, honako gai hauek jasoko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Zehazki, kontuan hartu beharko da nola planak barne hartzen duen 1.3 jarduketa-ildoaren 9. Jarduketa nagusia, zeinak honako hau ezartzen baitu: «Lurralde-antolamendu adimentsu baten ezarketa bultzatzea, populazio-dentsitate handiagoak saritu ditzan, eta lurzoruaren erabileren konbinazioa eta lurzoru-kontsumoaren optimizazioa indartu ditzan, lurzoru horren berrerabilpena eta lehengoratzeta lehenetsiz».

Horrez gain, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutako irizpideak jaso beharko ditu.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute planaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitatak eta espezieak, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- e) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- g) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.



Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak baloratu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipatu garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

B. Ingurumen-ebaluazioaren esparru geografikoa.

Plana esparru geografiko honetan aplikatuko da: El Juncal SI-JU-UB01 industria-sektorea. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria da Trapagarango HAPOaren arabera. Sektoreak 80.763 m²-ko azalera du, eta Granada ibaiarekin egiten du muga iparraldean, Ugarte industrialdearekin hegoaldean eta BI-3746 zein BI-3747 errepideekin ekialdean eta mendebaldean, hurrenez hurren.

Erabilera industrialerako egokia den lurzoruan dago esparrua, Trapagarango HAPOaren testu bateginaren arabera. Eremu osoa dago eraldatuta, inguruan egin diren jarduera industrialen ondorioz. J1 eta J2 lurzatiak ezarriko diren eremuak material pilaketara bideratzen dira gaur egun (ikatz aire zabalean pilotzea eta eta txatar-biltegia). J3 lurzati izango den eremua urbanizatu gabe eta abandonatuta dago. Sektoreko hego-ekialdean, furgoneten aparkalekua du ibilgailuak alokatzeko enpresa batek. Planak, halaber, industriagunetik aparte dagoen espazio libreen sistema orokor baten (SGEL_ES12.a) zati bat ere adskribatzen du (% 25a).

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Planaren eraginpean zuzenean dagoen esparrua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ezta inbentarioan sartutako gune babestua edo natura interesekoa ere. Ez da, ezta ere, EAEko Korridore Ekologikoen Sareko egitura-elementua, eta ez du inbentariatutako edo katalogatutako paisaia-baliorik.

Plana ingurune ia erabat industrialean gauzatzekoa da, eta eremu horren ingurumen-kalitatea oso txikia da. Hala ere, nabarmentzekoa da sektorearen ertzetik doala Granada ibaiaren ibilgua; izan ere, eremuaren zati handi bat jabari publiko hidraulikoaren zaintza-eremuaren barnean dago.

Kontsulta-izapidean Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostenaren arabera, Granada ibaia, eta ibaira isurtzen den Barsillao erreka, bi-biak plan partzialaren eragin-eremuan, arrain hiruarantzaren bizileku dira (*Gasterosteus aculeatus*). Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan sartuta dago espezie hori, egoera kalteberan. Horrenbestez, Bizkaian arrain hiruarantza kudeatzeko plana aplikatu behar da (Bizkaiko Foru Aldundiak 186/2008 Foru Dekretu bidez onartua 2008ko abenduaren 9an).

D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera eman beharko du.

Kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuei dagokienez, honako hauek dira garrantzitsuenak:



- Sektore osoa dago lurzorua kutsa dezaketen jardueren EAEko kokaguneen inbentarioan (48080-00136 eta 48080-00134 lurzatiak). Ihoberi egindako kontsulta-izapideari emandako erantzunaren arabera, 48080-00136 lurzatian jarduketak egin dira, Inversiones Satwind SL izeneko espedientearen esparruan (SC-30/07), baina ez dira lurzoruaren kalitate adierazpenarekin osatu.
- Planaren eremua uholde-arrisku garrantzitsuko eremu baten barnean dago (Galindo ES017-BIZ-IBA-02). Eremuaren zati handi bat 100 urteko erreplikatzeko-denborako uraldien eragin-eremuan dago; ipar-ekialdean, eremu txiki bat 10 urteko erreplikatzeko-denborako uraldien eragin-eremuan dago. Gainera, Granada ibaia lehentasunezko fluxu-eremua da.
- Kontuan hartu behar dira urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako kalitate akustikoko mugak (EAEko hots-kutsadurari buruzkoa da Dekretua). Aurkeztu informazioaren arabera, sorgunetik 2 metrora dagoen zaraten mapen arabera, gauez mugak gainditzen dira, baina etorkizunean erabilerarik izango ez duen leku batean. Aurreikusi diren erabilera industrialeko eraikinen fatxadetan, zarata-mailak indarreko legedian ezarritako kalitate akustikoko helburuetatik behera daude. Alabaina, zuzkidura-ekipamenduetarako eremuak ez ditu betetzen kalitate akustikoko helburuak zenbait erabileratan, esaterako, babes berezia behar duten hezkuntza-erabileretan, erabilera sanitarioetan eta kultura-erabileretan.
- Eremu osoa Bizkaiko foru-errepideen zortasun-eremu akustikoaren barnean dago.

E. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareko Zuzendaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusiak adierazitakoaren arabera, ez dago eraginik kultura-ondarean planaren esparruan.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak adierazitakoaren arabera, Granada ibaia, eta ibaira isurtzen den Barsillao erreka, bi-biak plan partzialaren eragin-eremuan, arrain hiruarantzaren bizileku dira (*Gasterosteus aculeatus*). Espezie mehatxatuen EAEko katalogoan sartuta dago espezie hori, egoera kalteberan. Horrenbestez, Bizkaian arrain hiruarantza kudeatzeko plana aplikatu behar da (Bizkaiko Foru Aldundiak 186/2008 Foru Dekretu bidez onartua 2008ko abenduaren 9an). Ingurumen-azterketa estrategikoak xehe aztertu behar ditu arrain hiruarantzaren habitatari zuzenean edo zeharka erasan diezaizketen jarduketak eta proposamenak, eta aipatu espezie mehatxatuari inolako kalterik ez egitea bermatzeko babes-neurriak hartu beharko ditu.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumen Jasangarritasun Sailak zaratari buruz adierazitakoaren arabera, eremuak kalitate akustikoko helburuak betetzen ditu egungo egoeran, baina etorkizuneko egoera zehaztuta ez dagoenez, ezin daitezke zenbatetsi zarata-mailak,



eta ezin daiteke aurreikusi beharrezkoa izango ote den eragin akustikoa murrizteko neurri zuzentzaileak hartzea. Era berean, zarata-mapak kalkulatzeko, abenduaren 7ko PCI/1319/2018 Agindua 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri ondotik aplikatu behar diren irizpideak jarraitu behar dira. Agindu horren bidez aldatu zen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuaren II. eranskina, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena (inguruneko zarataren ebaluazioari buruzkoa).

- IHOBE SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak informatu du eremuan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak historikoki jasan dituzten partzelak daudela, eta, beraz, kaltegarriak izan daitezkeela etorkizuneko erabiltzaileentzat edo ingurumenarentzat. Era berean, informatu du horietan guztietan lurzorua kalitate-adierazpena izapidetu beharko dela, baldin eta Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuren bat ematen bada. Jaso den txostenaren arabera, 48080-00136 lurzatian jarduketak egin dira, Inversiones Satwind SL izeneko espedientearen esparruan (SC-30/07), baina ez dira lurzorua kalitate-adierazpenarekin osatu.

F. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ebazpen honen 2. puntuan adierazi den moduan, ingurumen-azterketa estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da ((planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du dekretu horrek).

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Ingurumenaren gaur egungo egoera.
3. Ingurumenean egon daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Aukerak hautatzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak -aurrerantzean, azterketa- behean azaltzen diren alderdietan sakondu behar duela, adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak

Azterketak planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekin dituzten erlazioei buruzko analisi labur bat. Gainera, ingurumen-alderdiak



planaren prestaketan nola txertatzen diren azaldu beharko du. Aztertu beharko da planaren aplikazioak nola laguntzen duen ingurumen-helburuak txertatzen.

Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean Ebazpen honetako 2.A apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai Planean bertan ezarritako adierazleen eta mugen erabileran oinarrituko da.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hierarkian gorago dauden lurralde- eta sektore-antolamenduaren planekin bateragarria den analisi bat aurkeztu beharko du. Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan hauek hartuko dira kontuan:

- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Trapagarango Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
- Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaian arrain hiruarantza kudeatzeko plana, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 186/2008 Foru Dekretu bidez onartua.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrak eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, Planaren inpaktuak identifikatu eta baloratzeko apartatuan ebaluatuko dira. Helburu komunak lortzea izango da xedea eta, horrez gain, beste plan batzuen helburuekiko eta jarduketa-ildoekiko gainjartzeak, gatazkak edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan Planeko jarduketa-aukerak ebaluatzea.

2. Ingurumenaren egungo egoera.

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta plana aplikatu ezean gunek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, Ebazpen honen D apartatuan identifikatu diren eremuei loturikoak bereziki, eta hirigintza-garapen berrietarako mugak, alegia, Ebazpen honetako C apartatuan ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotakoak.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneoak zehaztuko dira, haien paisaia-ezaugarrien eta natura-baliabideen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Planaren izaerarekiko proportzioa duen eskalan.



Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleetan bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta txosten honetako aurreko apartatueta adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Gutxienez, kontuan izan beharko dira adierazle hauek, egungo egoera adierazten dutenak proposamenarekin alderatuta.

- %, erriberako landaredia-azalerarena.
- %, errekuperatu nahi den lurzoru kutsatuarena.
- %, azalera urpekorrena.
- %, espazio libreetara zuzenduko den azalerarena.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko zailtasunak justifikatuz, halakorik izatekotan. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterketak, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

3. Ingurumenean egon daitezkeen eragin esanguratsuak.

Atal honetan, ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina -bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia-, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskainitako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luze eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterketak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta, batez ere Granada ibaian egindako jarduketaren ondoriozkoak; hirigintza-garapenak uholde-arriskuan izan dezakeen eragina aztertu beharko da.

Azterlanak kontuan hartu beharko du arrain hiruarantzak (*Gasterosteus aculeatus*) jasan ditzakeen eraginak. Horrenbestez, Bizkaian arrain hiruarantza kudeatzeko plana aplikatu behar da (Bizkaiko Foru Aldundiak 186/2008 Foru Dekretu bidez onartua 2008ko abenduaren 9an).

Ingurumen-azterketa estrategikoak bermatu beharko du ekipamendu kolektiborako eraikinaren fatxadak beteko direla 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak



(213/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa).

Bestalde, azterketa bat egin beharko da kontuan hartutako aukera edo alternatibetan aurreikusitako zirkulazio hazkundeari buruz, baita zirkulazioaren hazkunde horrek airearen kalitatean eta zarata handitzean izango duen eraginari buruz ere.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 23. artikuluan sartutako egoeretako bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitate-adierazpena izapidetu beharko da. Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartze abian jarri aurretik, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, lurzoruaren kalitatearen azterketa bat egitea lurzoruaren kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat partzelak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat; bigarrenik, bertan utzitako hondakinak, eraikinak eta hondeatuko diren lurrak egoki kudeatuko direla bermatu beharko da, indarrean den hondakinen arloko legedia betez.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko apartatuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zein garapen-tresnatan inplementatuko den zehaztuko da.

Interes bereziko da Granada ibaiaren ertzak landareztatzea. Beste neurri batzuk ere srtuko dira, eremu edo azalera handiak iragazgaiztearen ondorioz sortutako jariatzeak kontrolatzera zuzenduak.

Horrez gain, ingurumen-azterketa estrategikoak Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuen aurreikuspena identifikatu beharko du etorkizunean baimendu ahal izateko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

Prebentzio- eta zuzentze-neurrien artean, jabari publiko hidraulikoa babesteari eta uholde-arriskua prebenitzeari buruzkoak aurreikusiko dira. Horiek zehazteko, txosten honen aurreko apartatueta aipatutako planetan ezarri irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaietako eta Erreketako Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki atal arauemaileko 44. artikulutik 46. artikulura zehazten diren irizpideak.

Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Azkenik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBEK egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitze udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21 lan-

koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)».

5. Aukerak hautatzeko prozesua.

Honako hau bilduko da: aukerak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Planaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere ingurumen-helburuekikoak, uholde-arriskua, lurzoruak kutsatzea eta hots-kutsadura prebenitzekoak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartu behar du ezer ez egitearen aukera. Bada, aukera horretan, Planaren eremuak gaur egungo egoeran jarraituko luke. Plana aplikatu ez eta gaur egungo egoeran jarraituz gero, aztertu beharko da zein izango litzatekeen arlo garrantzitsuen eboluzio gertagarriena.

Azterketa horretan, ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, efektu esanguratsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak jaso egin beharko ditu azterketan Ebazpen honetako F.2 atala betetzeko proposatzen diren adierazleak. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

7. Laburpen ez-teknikoa.

Azterketak barnean hartuko du aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, herritarrek oro har ulertzeko moduko eta aztertutako alderdi guztiak lantzen dituen informazio zehatzarekin, baita informazio grafikoarekin ere, dokumentu autoaskia eta azterketarekiko berarekiko independentea izan dadin.

G. Hasierako onespeneren ondoren, sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baitute urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, 12. artikuluan, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko apartatuetan aipatu bezala, honako hauei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumen Jasangarritasun Saila
- Ekologistak Martxan Bizkaia
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarte

H Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa

Organo erabakitzaileak, edo hala badagokio sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bat datoz) Plan honen hasierako bertsioa zein ingurumen-azterketa estrategikoa jendurrean jarriko ditu, gutxienez 45 egunez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikularen arabera, gehienez ere hamabost hilabeteko epea izango da Azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko, irismeneko dokumentu hau erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

I. Dokumentazioa aurkezteko instrukzioak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikularen arabera, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterketak pertsona horiek identifikatu beharko ditu, haien titulazioa eta, hala badagokie, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak barnean hartuko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, salbu eta Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean adierazteko zer datuk ahalbidetzen duten dokumentu teknikoaren atalak haien artean erlazionatzea (esaterako, atal batean



proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).

3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Igorritako fitxategi bakoitza ez da 30MB baino gehiagokoa izango. Igorri beharreko dokumentazioak 30 MB baino gehiago pisatzen badu, hainbat artxibotan zatituko da.
5. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten ataletan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, geoerreferentziatuta.
6. Analisi tekniko egokia errazteko, pantailaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da shape formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), 10 Mb-koa baino gutxiagokoa izan beharko dena.
7. Plano guztiak zenbakiarekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
8. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituz egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.
9. Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
10. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturtat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eskatu ahal izango da, kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
11. Agiriak karpetatari jasota entregatu beharko dira, eta, legeriak dokumentu horren edukia nola deskribatzen duen, bada antzeko titulua jarri beharko zaie karpetei.
12. Informazio jakin bat separata moduan aurkeztekotan, izenburua eta erreferentzia eman beharko zaizkio, dagokion legerian zehazten den agiriaren edukian aipatutako apartaturen bati atxiki ahal izateko.
13. Gainera, bestelako karpeta gehigarri batzuk ere aurkeztu ahal izango dira izaera orokorreko planoz eta informazio hornituta, plano eta informazio horiek apartatu batzuen helburuetarako baliagarri badira. Ingurumen-organoren zerbitzu teknikoek kontuan har dezaten karpeta gehigarrietan bildutako elementuetako edozein,



elementu horrek behar bezala erreferentziatuta egon beharko du aurkezten diren dokumentu guztietan.

14. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatu behar diren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilia, zehazki, helbide honetan: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml
15. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.
16. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat gehituko da, apartatu bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. PDF dokumentu baten aurkibidea ematen denean, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori topatzeko irakurketa programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.
17. Organo sustatzaileak, datuen transmisioan, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen hau Trapagarango Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 17a

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
IVAN PEDREIRA LANCHAS